



Dirección- Helbidea: C/ Tajonar 14 Aula 31  
(CAP de Pamplona.)  
Tfnos 948 247 194 / 653 957 559  
[apsnavarra@gmail.com](mailto:apsnavarra@gmail.com)  
[www.apsn Navarra.com](http://www.apsn Navarra.com)

**ZERGATIK APSNAFARROAK EZ DU SINATU**  
**“ESKOLA PUBLIKO, LAIKO, DOANEKO,**  
**DEMOCRATIKOA ETA KALITATEZKO BATEN ALDE’ MANIFESTUA**  
**HERRIKOA, COO, STEE-EILAS, LAB, ELA,**  
**Sortzen-Ikasbatuaz, Batzarre eta Aralarrek sinatua.**

2010eko apirilaren 29an Nafarroako prentsan CCOO, STEE-EILAS, LAB, ELA, SORTZEN-IKASBATUAZ, BATZARRE eta ARALARREK sinatutako “Eskola publiko, laiko, doaneko, demokratiko eta kalitatezko baten alde” izeneko manifestuaren berri izan genuen. APSn 2010eko martxoaren 9an testu horren zirriborroa jaso genuen. Zirriborro hau azertu ondoren dokumentu honetan laburtzen ditugun alegazioak igorri genizkien. Horiek guztiak errefusatuak izan zirenez, manifestua ez genuen sinatu. Hona hemen arrazoiak:

1. Eskola berez demokratikoa da baina, gure ustez demokrazia ez datza erabakiak hartzeko garaian eskola-elkarteko kide guztiek pisu bera izatean. Edozein demokrazian erabaki-maila ezberdina inplikatzan duen hierarkia bat dago, eta, hori ez da antidemokratikoa.
2. Emaizak nahiz irakasle esperientziak dira egoeraren azterketa ezkorra (eta errealista) bideratu dutenak (ez, ordea, “*sektore konserbadodreak*” manifestuan aipatzen den legez). Gainera, berez baikorrak ez diren emaitza horiek beraiek, “*arrakastaz*” edo “*porrotaz*” mintzo dira titulazio-estatistiken arabera, eta ez, ikasleen maila akademikoaren arabera, zentsuzkoena hori balitz ere.
3. CCOO, STEE-EILAS, LAB, ELA, Sortzen-Ikasbatuaz, Batzarre eta Aralarrek Nafarroako eskola publikoaren gaur eguneko egoeraz duten ikuspuntu idilikoarekin bat egiten ez dutenak konserbadoretzat jotzea doanekoa eta seriotasun gutxikoa iruditzen zaigu.
4. Nafarroak “*Azken urteotan izan dituen erronkei erantzuna ematen jakin duela*” dioen baieztapenarekin ez gaude ados.



Dirección- Helbidea: C/ Tajonar 14 Aula 31  
(CAP de Pamplona.)  
Tfnos 948 247 194 / 653 957 559  
[apsnavarra@gmail.com](mailto:apsnavarra@gmail.com)  
[www.apsnavarra.com](http://www.apsnavarra.com)

5. Egoera ezagutzen ez duen edo zikinkeria alfonbraren azpian izkutatu nahi duen Gobernuaren eta azken honi kritikarik gabeko defentsa dirudien manifestu bat izenpetzeko prest ez gaude. Hala eta guztiz ere, gure Elkarateak eskola publikoaren kalitate eta doaneko printzipioak defendatuko dituela argi utzi nahi dugu (demokrazia eta konstituzio-printzipioak egintzat jotzen baitira)
6. Eskola publikoak *“ikastetxeko ikasle, familia, irakasle eta langile guztien pentsakera-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna errespetatzea”* bermatzen dugu. Baina, aldi berean, erlijioa norbanakoaren intimitatearen zati (eta bide batez, famili osoarena) denez, eskola publikoan inposatu nahi den emozio-hezikuntza edo moralari irizpide hori bera aplikatzea eskatzen dugu. Gure ustez, eskola publikoa irakaskuntza akademikoan oinarritu behar da eta ez moralean edo emozionalean. Era berean, irakaskuntza akademikoak berak elkarbizitzarako hiritar libreak sortzeko baloreak nahiz oinarritzko jarrerak ederki irakats baititzake.
7. *“Guztien heziketa-arrakastaren alde”* lan egitea utopikoa eta irrealia iruditzen zaigu. Heziketa-arrakasta ikasle bakoitzaren esfortzuaren baitan dago hein handi batean. Eta gure ustez *“heziketa-arrakasta”* ezagutza-maila egokia lortzean datzalako eta ez kurtsoaren igarotzean, ezagutza-mailari erreparatu gabe.
8. Ekonomi-, sexu-, erlijio-, pentsakera-, kultur edo adin-arrazoiak direla medio inor ez baztertzea aldarrikatzen duen manifestu bat egitea zentzugabea iruditzen zaigu. Izan ere, arrazoi horiek guztiak Espainiako Konstituzioan bilduta daude.
9. APSk eskola *“inklusiboa”* onuragarria ote den zalantza handiak ditu. APSNafarroak aukera-berdintasuna eta zailtasun bereziak dituzten ikasleei laguntza eta bermea ematea beti defendatuko du, baina ez du onartuko, ez emaitzen homogenizazioa ezta denentzako titulazioa derrigortzea ere.



Dirección- Helbidea: C/ Tajonar 14 Aula 31  
(CAP de Pamplona.)  
Tfnos 948 247 194 / 653 957 559  
[apsnavarra@gmail.com](mailto:apsnavarra@gmail.com)  
[www.apsnavarra.com](http://www.apsnavarra.com)

10. *“Gatazkak konpontzeko elkarrizketa eta negoziazioan oinarritzen diren prozedurak eta praktikak aplikatzea eta sustatzea”* delakoak honako galdera egitera garamatza: ¿Izenpetu duten erakundeek ezagutzen al dute elkarrizketan oinarritzen ez diren praktikak aplikatzen duen ikastetxe publikorik? Bestalde, gatazka guztiak ezin dira elakarrizketa eta negoziazioaren bidez konpondu, batzuk dagokien zigorrarekin ebatzi behar izaten dira, eta honek ez du kalitate demokratikoa gutxitzen, inondik inora. Inork ez du zalantzan jartzen gizarte demokratiko batean bizi garela mozkortuta gidatzea larriki zigortzen bada ere.
11. Ez dugu ulertzen *“estereotipo sexistekin apurtzen duen hasieratiko eta jarraia den heziketa sustatzearen”* beharra. APSn ez dugu inolako problemarik ikasle batek tailer batean edo ile-apaindegi batean lan egin nahi badu, biek ere, batean zein bestean sartzeko aukera berak baldin badituzte. Bere kasa erabakitze gaitasunean eragitea eta, gustatu ala ez, estereotipoak apurtzearen, mutiko batek ile-apainketa ikastera behartzea eta, era berean, neskatiko batek mekanika ikastera derrigortzea, demokrazia eskasekoa eta, zergatik ez, irrigarria iruditzen zaigu.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6a

APSNafarroa